

Leire Sarasola Auzmendi

D maila • 1 aipamena

Kaixo, nire izena Leire da.

Hamabi urte ditut eta Beasaingo La Salle ikastetxean DBHko 1.maila egiten ari naiz.

Nire zaletasunak musikaren, kirolaren eta arte plastikoaren inguruan kokatzen ditut. Zehakako txirula jotzeaz gain, saskibaloian jokatzen dut eta, denbora librean, marrazkiak egiten ditut.



INSPIRAZIO BILA

Margotzea dut larunbat goizetako gustuko planetako bat. Margotzeak erlaxatzen nau, presarik gabe egiten dut, irudimena abian jarri eta automatikoki koordinatzen ditut lerro zuzen eta kurboak, margo nahasketak, espazioaren banaketa ...

Gaur gogotsu esnatu naiz. Iratzargailuak jo orduko ia-ia jantzita nengoen, "Gustuko lekuan aldaparik ez!" esanez eta begia klikatuz jaso dut aitaren agurra. Atzo egongelan eseki nuen berokia jantzi dut, sukaldeko mahai inguruan dauden lau aulkietako bat hartu eta balkoian utzi dut, korrika batean nire gelara eramaten dituzten eskailerak igo eta aurreztutako eltzetsuko diruarekin erositako margoak hartu ditut.

Balkoian nago, eszenatokia prest dago: eserlekua, oihala, margoak ... baita paisaia ere. Txindoki mendia dut parez pare, askotan margotu izan dut, etxe azpiko parkeko zuhaitzen hosto jaioberrien berde indartsua lortuko ote dudan zalantza izan dut ... Ordu bat pasa da eta ez naiz ezertan hasi. Hurrengo larunbatean izan beharko du!

Bazkaldu ondoren amonaren etxera joan naiz eta esku-hutsik ikusi nauenean harridura aurpegia antzeman diot, izan ere, larunbatero erakusten dizkiot goizean egiten ditudan marrazkiak. Inspiraziorik gabeko eguna izan dudala eta hurrengo batean izan beharko duela esan diot.

Gure amona ere artista da, orratzekin eta jostorratzekin egiten ditu artelanak. Artilezko bufanda bat egiten ari zait, egunero ari da lanean, galtzerdiei egiten dizkiegun zuloak estaltzen ditu bere eskulanez, inauterietako mozorro-jantziak diseinatu eta josten dizkigu, txikiak ginenean panpinentzako arropak egiten zizkigun ... Ez du inspirazio arazorik!

Amonak Ordiziako Nikolas Lekuona artistaren berri eman dit. Artista abangoardista bikaina, margolaria izateaz gain, arkitektoa, marrazkilaria, argazkilaria eta idazlea izan zena. Hogeita lau urterekin hil zen Gerra Zibilean eta Nikolasek utzitako lan oparoa ez omen dugu behar adina ezagutzen.

PROSA

Etxera iritsi naizenean ordenagailuko bilatzailean Nikolas Lekuona idatzi dut eta harrituta utzi nau bere lanak: margolanak, argazkiak, fotomuntaketak ... Irudimenarekin lan egiten zuen artista baten nondik norakoak ezagutzeko aukera izan dut, begiek ikusten dutena irudimenaren bidez antolatu eta eskuekin bere aurkezpen pertsonalak egiten zituen artista paregabea. Inspirazio iturri bilakatu zait!

Aste bat pasatu da eta eskolan nago arteko arloan. Irakasleak mihise huts bat eman digu eta nahi duguna marrazteko proposamena luzatu digu. Irudimena erabiltzeko. Orain arte, irakasleak berak egindako margolan bat eman eta guk margolan horren "kopia perfektua" egin behar izan digu. Apur bat nahastuta utzi gaitu irakasleak, noraezean.

Begiak itxi ditut eta aurreko asteburuan ikusi eta ikasitakoaz oroitu naiz. Irudimenaz baliatuta, ikasitakoaz oroituz. Niretzako instant bat izan dena denboran luzatu da. Gelakideak konturatu dira eta zertan ari naizen galdetzeko ausartu ez badira ere, nire gainean hauteman ditut haien jakin-minezko begiradak.

Begiak ireki ditut eta inoiz baino libreago marrazten hasi naiz. Pixkanaka nire mihisea betetzen joan da eta horrek sortu didan zirrarak ez du hitzik. Izan ere, inoiz atera zaidan koadrorik politena gauzatu dut nire ustez.

Lagunek nire koadroa ikusi dutenean, harrituta gelditu dira. Orain arte egin dudan koadrorik irudimentsu eta politena dela esan didate.

Koadroa egiteko momentuan zertan oinarritu naizen galdetu didatenean, Nikolas Lekuona artistaren berri izan nuela eta haren lana ikertzen aritu naizela aitortu diet. Irakasleak gustura entzun ditu lagunei adierazi dizkiedan kontuak eta gelako proiektoreaz baliatuta erakutsi dizkigu artistaren ibilbide motzeko hainbat adibide.

Gaur irakaslea pozik dago. Bikainak omen dira egin ditugun artelanak eta ikastetxean zehar, korridoreetan zintzilikatuko dituela agindu digu. Irakasleari ere inspirazioak bisita egin dio nonbait; hurrengo saioan koadro kolektibo bat egin behar dugula esan digu. Primerako esperientzia izango da, ziur nago!

Arratsaldean amonaren etxera joan naiz. Niri amonaren istorioak gustatzen zaizkidan moduan, berari ere nireak asko gustatzen zaizkiola esan zidan behin. Gaurko artelana egiteko inspirazioa Nikolas Lekuonaren margolanetan bilatu dudala esan diodanean asko poztu da. Kontatu dizkidan istorioetatik asko ikasten ari naizela konturatu da eta...

Harro dago amona, nitaz harro!